



KLASIKOAK HURBILAGO UEUKO IKASTAROAN

*Testua: Izaskun Ellakuriaga
Argazkiak: Oskar Montero*



Uztailaren bigarren hamabostaldian izaten da zita tokia, Iruñea. Sanfermin ondorena nabaria da kaleetan, iruñear askok merezita-ko lasaitasunean oporrak hartzeko sasoia izaten baitute. Hala ere, bisitariak ez dira faltako. Larraona Ikastetxera makina bat euskaldun hurbilduko da. Guztiak Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko asmoarekin. Era guztieta-ko ikastaroak; batetik antzerkia eta musika, bestetik matematika, fisika eta natur zientziak, literatura, ekonomia, itzulpengintza, soziolinguistika, pedagogia,... eta tartean bertsolaritza.

Hamabostaldiko bigarren astean bertsolaritza interesguneetariko bat bihurtu zen UEUn. Hori usteko zuten, bahintzat ikastaroan parte hartzeko asmotan Larraonara urreratu ziren 14 lagunek. Hamalau bertsozale. Astebeteren buruan eta lagun arteko giroan, bertsolaritzaz pixkat gehiago ezagutzeko jakinmina izan zuten gazteak ziren.

Bertsolari klasikoen bizitza, bertsokera, bertsogintza,... ardatz izan ziren uztailaren 25tik 30era bitartean. «Gazte jendeari bertsolari klasikoak hurbilarazi eta ezaguteraztea» zen helburu nagusia Unai Iturriaga eta Igor Elortza ikastaroko koordinatzaileen esanetan. Betebehar horretarako gaur egungo zenbait bertsolari prestatu ziren, hala nola, Andoni Egaña, Juanjo Respaldiza eta Jon Enbeita. Eta aztergai beste hiru bertsolari: Pello Errota, Txirrita eta Enbeitatarrak (batez ere Txotxojeuri eta Urretxindorra).

Baina bestelakorik ere izan zen bost egunetan: Xabier Amurizak errimari buruzko prosamen berri baten notizia eman zuen: Jon Sarasuak bertsolaritza eta gainontzeko kultur ihardueren arteko berdintasun eta ezberdintasunak nabarmendu zituen; Karmen Larrañagak Euskal Herriko mugetatik kanpo eraman gintuen Jugoslabiako «bertsolaritza edo ahozko ihardueraz» mintzatuz; Jon Lopategik diktadura garaiko bertsolaritzaren egoera anekdotak kontatuz isladatu zuen; ikastaro erdian debaterik ere ez zen falta izan. Emakumea eta bertsolaritzaz eztabaida abaroa sortu zen; eta bertsotarako tartetxo bat ere izan genuen. Kitarren laguntzarekin kopia edo punturen bat kantatu gabe gutxi geratu ziren.

Guztia astebeteko epean aztertu zen, sakon batzuetan, azaletik bestetan. Baina beti ere, hasierako helburua kontutan hartuz: «modu arin eta entretenigarrian». Izan ere, bertsolaritza ikastaroa nahi duen guztiari zuzenduta badago ere, batez ere unibertsitate mailako bertsolari eta bertsozaleentzat aukera ona da, beren kezkak azaldu, bertsolaritzak egun bizi duen egoeraz hausnartu eta klasikoen berri jakiteko.

Errima berritu eta zabaldu beharra

Xabier Amuriza izan zen lehen protagonista eta hizlari UEUn bertsolaritza antolatutako ikastaroan. Bertsolaritzan Amuriza berritzailetzat jo izan da askotan. Oraingoan ere, bertsolaritzan finkatu beharreko urrats berri batzuen nondik norakoak azaldu zituen. Errima kontuak aipatu zituen, batipat berritu eta zabaldu beharra azpimarratuz.

Amurizaren hitzetan «urte dexente atera nuen Hiztegi Errimatu zaharkituta geratu da. Horrek ez du esa nahi oraindik ere baliagarri ez denik, baina errima arloan bide berriak jorratu behar dira eta hiztegi berri eta zabalago bat egin».

Gaur egun hizkuntza gizarteko beste adar batzuetara zabaldu da. Tartean mota eta arlo ezberdin askotako hiztegiak ere sortu dira. Honek bere eragina izan du bertso munduan. Azken finean, bertsolaritza ahozko iharduera baita eta hizkuntza tresna nagusi izanik aldaketa horiek nabaritu baititu. Horregaitik, Hiztegi Errimatuak errimen sailkapenari buruz gaurkotasuna mantentzeko ere, bai lexiko baita egitura batzutan ere berritu eta zabaldu beharra dago.

Lan gogorra da Amurizaren ustez, «baina egin beharrekoa». Lan horrek abiapuntu ezberdin asko izan ditzake hala ere. Atzizki kontuetatik hasiko dugu.

Badaude zenbait atzizki eguneroko hizkuntzan erabiltzen direnak eta euskaratzen hartu ditugunak, baina oso garrantzitsuak izan arren bertsotan errima lez erabiltzen ez direnak. Horretarako atzizkien zerrenda bat osatu eta sailkapen berri bat egin beharko litzateke Adibile gisa «-iko» eta «-ble» atzizkiak jarri zituen Amurizak. Bere iritziz, «atzizki hauek daramatzaten hitzak asko dira eta guztiz ezagunak ditugu. Baina ez baditugu gure errimen eskeman integraturik, ez dugu era natural batean erabiliko. Horregaitik, apurka-apurka toxikoa, basiko, miserablea, amablea,... bezalako hitzak gure errimaren eskema horretan sartu behar ditugu. Eta horrek errima aberastu eta betiko eskemetatik irtenaraziko gaitu».

Errima bertsoko hitzik garrantzitsuena du-gu eta entzulearengan inpresio handiena sor-



tzen duen berba. Beraz, bertsolaritzaren eboluzio honetan errimen kolorea ez da estetika aldetik soilik aldatu behar, baita kontzeptu mailan ere.

Hasierako Hiztegi Errimatua egiteko Amurizak Azkueren hiztegiari buelta eman zion. Orain dauden hiztegi espezializatuak aztertu eta errima gisa erabil daitezkeen hitzak jasotzea dela lana uste du Amurizak.

«Bertsolaritza kristalizatutako forma»

Jon Sarasuak bertsolaritza ere beste kultur ihardueren artean dauden berdintasun-ezberdintasunak nabarmendu zituen. Bere ustez, «bertsolaritzak gaur egun kristalizazio bat hartu du, beste kultur iharduerek izan duten eboluzioaren antzekoa».

Gaur egun kultura ez da hainbeste kontsumo elitistarako, kontsumo diferitua nagusi da, kontsumo indibiduala. Ez dago harreman sozialik produkzioa eta kontsumoaren artean. Kopia nagusitzen da.

Bertsolaritza gaur egungo kulturaren antitesia da zenbait kasutan. Esaterako, bertsolaritza orain arte maila sozial anitzak harrapatzen dituen jarduna da, kontsumo zuzena baitago espazio fisikoari esker: plaza.

Plaza kontzeptua inportantea da. Kalea adierazten du, edonorentzat eskuragarria den espazio baten aurrean gaude. Badago nola-baiteko harreman, talde kontsumoa da eta ingurune sozialetik gertu dago.

Guzti hori, ordea, arriskuan egon daitekeela deritzo Sarasuak. Bere ustez «kulturbide dominanteetan sartzeak bertsolaritzaren ezaugarri garrantzizko batzuk distorzionatzeko arriskua dakar: zuzenekotasuna, espazio fisikoa...».

Jugoslabiako bertsogintza epikoa

Euskal Herrian ezezik herrialde bakoitzak bere ahozko tradizioa du. Guk bertsolaritza deitu diogu ahozko tradizio horren zati bati, neurri eta errimaz, inprobisatuz gertaerak, sentimenduak... kantatzeari. Hala ere, bertsolaritza, mota ezberdinekoa bada ere, beste



herrialde batzuetan ere lantzen da, Jugoslavian esaterako.

Karmen Larrañagak XX, mendearen erdira arte bizirik iraun duen Jugoslabiako bertsogintza epikoaz hitzegin zuen «Ahozkotasunaren bi usadioren konparaketa: Jugoslabiako etika eta Euskal Herriko bertsolaritza» izenburupean egindako lanean oinarriturik.

Jugoslabiako bertsolarien sormenerako une eta lekua bertso saioak ziren. Bertso saio horiek tabernan ezezik, azoka edo tabernatan ere egiten ziren. Eta bertsotarako sasoirik egokiena Ramadan garaia zen.

Jugoslabiako bertsogintza ez zen inoiz desafioan burutzen. Epikoa izanik, narrazio bat



zen. Bertsolaria bakarka ari zen bere jardunean eta ez zen beste bertsolari baten erantzunaren zai geratu beharrik. Horrez gain, puzzle eta tanbura musika tresnez baliaturik kantatzen zuten.

Funtsean, aurrekoen istorioen berrituraketa egiten zen Jugoslabiako bertsogintzan. Birmoldatze honetan elaborazio maila handia zegoen eta hor nabarituko zen bertsolariaren trebetasuna.

Jugoslabiako bertsolaritzak XX.mende erdiera arte indartsu mantendu zen. Harrezkero, ahozko tradizio hau hiltzorian dago. Baztertze prozesu hau alfabetatze prozesuari lotuta ageri da nagusiki.

Pello Errota

Andoni Egañak Pello Errota bertsolariaren bizitza, bertsokera eta bertsogintza erakutsi zuen. Bizitzari dagokiola, Pello Jose Elizegi 1840. urtean Asteasun jaio zen eta 1919.ean hil. Bai mundu mailan, baita Euskal Herrian ere garai korapilotsua izan zen. Euskal Herrian gerrate karlista pil-pilean zegoen, Espainian errege aldaketa eta mundu mailan teknikak aldaketa izugarria jasan zuen zinematografoarekin.

Bertsolaritzan ere garai esanguratsua izan zen. Bertsolaritzak indarra haru zuen garaia izan zen. Sasoi berean Xenpelar, Bilintx, Pedro M.^a Otaño eta Txirrita kokatzen dira.

Pello Errota ahozko jardunean sar daitezkeen hainbat fenomenoren islada da bertsolaritza. Bera da, Egañaren ustez, «bertso suelta» gehienek jabe. Pello Errotak ez zuen bertso-paper ospetsu eta kategoriazkorik idatzi, Bilintx edo Xenpelar bertso sorta idatziengatik ezagunak egin diren gisan. Pello Errota, batez ere, bertsoetan pasadizoak kontatzeagatik ezaguna da.

Pello Errota ofizioz errotaria zen. Bere bi-zipideak bertsoetarako beta uzten zion eta zenbait kasutan bertsoetatik ere ateratzen zuen eguneroko ogia. Euskal Herri osoan zehar bertsoetan ibilitakoa genuen. Bere eza-gupide nagusia Antonio Zabalararen eskutik jaso da.

Pello Errotaren bertso-gintzari dagokionez, lehenik garai hortatik aurrera ezkerreko eta eskuineko bertsoa desberdintzen hasi zirela aipatu beharko litzateke. Bereizketa honek bertsoa erriman kargatzen denentz du bere azalpena. Bertsoan errimak aginduz gero, gidaritza badarama, eskuineko bertsoa izango da. Aldiz, errimak ez badu bertsoan pisu nahikorik, aurreko puntuetan garrantzizkoena kontatuz gero, ezkerreko bertsoa izango dugu. Pello Errotak ezkerreko bertsoa nahia-go izango zuen. Bertso gehienetan, dotore hasi baina bukaera ahula izaten zuen.

Bapateko bertsolaria

Pello Errota, batez ere, bapateko jardunean, erantzun azkarrean izan da ezaguna. Hala ere, badauka bertso idatzirik. Ez zuen gai nabarmenik bertso-paperetan. Izan ere, Bilintxen maitasun gaietatik urrun eta, Xenpelar eta Pedro M.^a Otañoren gizarte eta politika kezkatik ere urrun ibiliko da.

Neurri txikiko egituraren nagusitasun azaltzen zuen Pello Errotak, 8ko txikian, 10ko txikian eta 9 puntukoan. Portzentaiak atera ezkerreko bertso ekoizpenaren % 70 neurri txikikoa dela esan daiteke. Gaur egun bertsolaritza gertatzen denaren kontrakoa dugu, orain neurri handia erabiltzeko joera baitago.

Hizkuntza aldetik euskara ulerterraza zera-bilen eta garaian modan zegoen lez beldur gabe erdal hitzak sarritan tartekatzen zituen.

Batipat baserri giroko terminologia aberatsa erabiltzen zuen. Hitz bereziak ere askotan sartzen zituen.

Txirrita

Jose Manuel Lujanbio 1860. urtean jaio zen Hernanin, 13 urterekin «Txirrita» izeneko baserrira bizitzera joan zen eta hori du bere goitzenaren jatorri.

UEUko ikastaroan Txirritaren berri Juanjo Respaldiza bertsolariaren eskutik jakiteko aukera izan zen ordu t'erdiko solasaldian.

Jaio 1860. urtean egin bazen, 1936. urtean 76 urte zituela hil zen. Hala ere, ia-ia azken egunera arte bertsoetan egin omen zuen. Mutil-zaharra izan zen eta horrek, hasiera batean txikikeria badirudi ere, uste baino garrantzitsuagoa izan zen bere produkzioan. Aspektu gehienetan askatasun handiz jokatzen zuen. Lanbidez hargina zen, alper xamarra izan arren. Horrez gain, analfabetoa izan zen.


Txirritaren bizitzako azken 10-15 urteetako bertsoak Jose Ramon Erauskinek kopiatu zituen. Dirudienez, goizero ohetik jeiki orduko bertso bat kopiarazten zion Erauskini.

Bertsokerari dagokionez, oso errima gutxi erabiltzen zuen Txirritak. Errimatzerakoan, kategoria gramatikalak erriman aldatzea ez zuen kontutan hartzen. Bestetik, gizona, gauz ona edo gizona hitzak errima berdin legez erabiltzen zituen. Kasu honetan, «z» hizkiak errimari indarra ematen dio eta ez zitzaion bokala aldatzerik inporta.

Karga handirik ez zuten hitzak erabiltzen zituen errimatzerakoan eta inolako erraparorik gabe maiztasunez erabiltzen zituen (zenbait bertso sortatan birritan baino gehiagotan ere). Beraz Pello Errotaren antzera, ezkerreko bertsoa nagusi zuen.

Neuri aldetik, oster, handiaren aldekoa zen Txirrita. Gazteleratik jaso eta diptongo ziren hitzak komeni zen bezala erabiltzen zituen. Esaterako, fuerte hitza berdin zitzaion bi silabaten edo hirutan neurtu.

Horrez gain, Txirritaren bertso-gintzan «klixte» gisa definitu ditzakegun esaldi zein hitzak aurkitzen ditugu. Hitz hauek edozein





momentutan komodin gisa erabiltzen zituen. Hona hemen adibide batzuk:

Data
Euskara eder batian
Ahotan hartu edo ibili
Eman zaizkagu eskerrak eta grazia
Neronek ez det ikusi baina
Zabalduko det gazeta

Bapateko eta idatzitako teknika oso ondo bereizten zituen. Bertso idatzietan, bestalde, ideia gehiketa bat egiten zuen inolako eskerma fikorik erabili gabe eta estilo zuzena ere maisuki erabiltzen zuen.

Gai aldetik nahiko arruntak erabiltzeko joera zuen. Neska-mutilen kontuak, apustuak, arazo sozialak esukarekiko kontzientzia, erlijioa, gerrak,...tankerako gaiak jorrazten zituen bere bertsoetan.

Hona hemen «Proporzio bat izandu nuen» izenburupean biltzen den bertso sorta. Bertan arestian aipatutako makina bat ezaugarri nabaritu daitezke:

Proporzio bat izandu nuen

Misiolari baten moduan
juan den lau hilabetian

nabil ejemplo onak ematen
inozentien tartian;
txorakerian ibili ginen
sasoi genduen artian,
ailegatu naiz hirurogeita
hamabigarren urtian,
zer lastima den ezkondu gabe
sartu beharra lurpian!

Proporzio bat izandu nuen
erdi zahartu ta gero're,
neskatxa batek: «Txirrita, biok
esposatuko gerade;
dituan gauzak eta diruak
zutzat izango dirade,
edo bestela azken fiñian
penetan hilko zerade,
guraso zaharren mobimentua
nola dan ikasi gabe».

Esan bezela neskaxa horrek
eman zidan albistia,
errespuesta aditu arte

larri egon zan tristia:

«Alde batera pena hartzen det
zu modu hortan uztia,
baiña zahartu naiz, ez da posible
lan horietan hastia;
borondatia estimatzen det,
eskerrik asko, gatzia».

Mutilzahar eta nescazahar asko
gelditu ginaden, baiña,
gure partiak eta gehiago
badago zeiniek egiña,
sortzen ditugun labore puskak
aisa gastatzeko diña:
hoge pezeta anega artua,
lau duro t'erdi iriña,
berrogeitaiño iritxiko zen
danak ezkondu bagiña.

Enbeitatarrak

Bizkaiko bertsolaritza inoiz aipatu behar bada, Enbeita abizena agertuko zaigu. Bertsolaritzaz oso lotuta egon baitira Enbeitatarrak. UEUn ere beraien berri jakiteko aukera izan zen, eta horretarako enbeitatar bat, egungo Bizkaiko txapelduna den Jon Enbeita izan zen Larraonako ikastetxean.

Txotxojeuri eta Urretxindorraren bertsoke-

ra azaldu zuen Jon Enbeitak. Hala ere, berak aitortu zuenez, «Urretxindorra zein Txotxojeuri ez dira kasu bereziak, hau da, familian zortzen den kasu bakarra. Dinastia oso bat da. Hala ere, ez dakigu noiz hasi den ezta noiz bukatuko den ere».

Txotxojeuri Muxikan jaio zen 1850.urtean. Bi aldiz ezkondu zen. Bigarren emaztearekin 7 seme-alaba izan zituen, tartean Urretxindorra.

Itzal handiko gizona zen herrian. Sei urtez alkate izandakoa, karlistadetan sarjentu,... Tabernazalea zen eta bertsotarako taberna ingurua zuen gustoko.

Bertsolari klasikoa genuen Txotxojeuri. Euskara herrikoia eta landugabea erabiltzen zuen. Baina beti aberatsa. Teknikari ez zion kasu gehiegirik egiten. Erriman ere ez zen konplikitzen. Berak esanahi zuenari errimak traba eginez gero, paso egiten zuen. Bizitasuna, ironia,... dira bere bertsokeraren ezaugarrietako batzuk. Balentin Enbeita, esaterako, berarekin hasi zen bertsotan.

«Urretxindorra» 1878.ean jaio zen. Eskola askorik ez zuen izan. Hala ere, irakurle amorratua zen eta horrek jakintasun handia ekarri zion. Euskara aberatsa eta landua erabiltzen zuen. Ahots ona zuen eta hortik zetorkion bere goitizena.

25 urterekin Getxon txapelketa egin zen eta irabazi egin zuen. Bizkaian koplalik bertsotarako pausua eman zuen Urretxindorrek. 40-50 urterekin gaixotu egin zen eta hurrezkero bertsokak gehiago idatzi zituen.

Sinismen handikoa zen eta bere bertsogintzan oso argi azaltzen zuen. JEL (Jangoikoa eta legea) lema defendatzen zuen bere bertsotan.

Bi garai bereiz daitezke Urretxindorraren bertsogintzan:

Getxoko txapelketa jokatu arte. Bertsolari klasikoa. Herriko euskara landua erabiliko du. Freskoa. Teknika landua. Ez du hizkuntza behartuko.

Getxoko txapelketa ostean. Abertzaletasuna buru-belarri defendituko du. JEL izango da bere gai nagusia. Euskara garbia eta landua erabiliko du. Bertsokak dibertitzeko izateaz gain, beren kezkak kaleratzeko medio bezala erabiliko ditu.

Baina klase teorikoetatik kanpo, klase ari-nagoak ere izan ziren bertsolaritza ikastaroan. Jon Lopategik diktadura garaiko bertsolaritza, garaiko hainbat anekdota eta pasadizuren kontakizunari esker azaldu zuen. Bertsokak inprobisatzeko tarte ere izan zen kitarraren laguntzarekin. Eta horrez gain, bertsolaritza ikastarotik kanpo bi saio berezi ikasteko aukera izan zen Larraonan. Batetik «Sei Eskale» izenburupean Trapu Zaharrak taldearen ikuskizuna; eta bestetik, Maddalen Lujanbio, Jesus M^a Irazu eta Mikel Markezen musika-bertsok emanaldia.

Balorazio positiboa

Ikastaro bukaeran egiten den balorazioa orokorrean positiboa izan zen, nahiz eta zenbait hutsegite izan ziren. Bestetik, 1995. urteko UEU bertsolaritzari buruzko ikastaroa prestatzeko, abenduaren hasieran Durangoko Liburu eta Diska Azokan aurten ikastaroan parte hartu dutenek bildu eta datorrenekoaren nondik-norakoak finkatuko dituzte.

